

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 20an hartutako erabakiaren laburpena: 2025-2026an Gazte Informatzaileen Sarea Programa bideratzeko diru-laguntzak emateko deialdia

BDNS(Identif.): 844125.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/844125>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Gazte Informatzaileen Sarea izeneko programa hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Oinarrizko Lanbide Heziketa, Batxilergoa, Erdi mailako berariazko Lanbide Heziketa eta Goi mailako Lanbide Heziketa, 2025-2026 ikasturtean eskainiko dituzten Vitoria-Gasteizko ikastetxeei zuzenduta dago.

Bigarrena. Helburua

Gazte Informatzaileen Sarea kudeatu eta dinamizatzeko diru hornidurak emateko modua arautzen da deialdi honetan. Eta deialdiaren xedea, hauxe da: gazteei beren garapen pertsonalerako baliagarri gerta dakiekeen informazioa eskuratzeko modua eskaintzea, eta informazio horren bilaketan eta zabalkuntzan parte hartaraztea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainak 20an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 11.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2025eko urriaren 2 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 20a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIERREZ